

Rikardo Ortega EBko zinegotzia kargu guztietan ordezkatua izan da

Atzo burututako Udaltzarrean baieztatu zen egun hauetan komunikabideetan argitaratutakoa

San Markoseko Mankomunitateko ordezkariak, Euskara batzordeko lehendakariak eta Eskola kontseiluko ordezkariak dira atzoko Udaltzarrean Rikardo Ortega EBko zinegotziari kendutako karguak.

Egun hauetan, Rikardo berak komunikabideei jakin arazitakoa, baieztatu zen, beraz, Udaltzarrean.

Ordezkoak

Honela, San Markoseko ordezkari berria Martin Moreno dugu eta Euskara batzordeko presidente berria, Iñaki Mugika.

Eskola Kontseiluan, Rikardoren lekua institutuko mahaian Marisa Zubirik hartuko du. Kontseilu honetan, beste aldaketa bat ere egin zen: Landaberri-Garaikoe-

txeako mahaian, Iñaki Mugikaren lekuan Martin Moreno egongo da.

Rikardoren salaketa

Egun hauetan komunikabideetan agertu den bezala, EBko zinegotziak bere ordezkapenaren atzean beste arrazoi batzuk daudela salatu zuen atzo.

Besteak beste, Goiegi Gorako hotelaren arau ordezkatzaileen alaketaren edo aurrekontuen bozkak aipatu zituen Rikardok.

Gainera, erausketa planta eta atez atekoari dagokionez PSOE-EEK, EAJ-k eta H11-ek haien zuzendaritzen aurrean makurtzen direla aipatu zuen. Eta aurreko batzar batean, EAJ-k San Markoseko ordezkariak zergatik mantentzen

zuen galdetu zueneko momentua ekarri zuen gogorra. Orduan, alkateak bere kudeaketa positiboa zela erantzun zuen. Orduan, "niri dagokionez ez da ezer aldatu," aipatu zuen Rikardok.

Udalaren erantzuna

Lasarte-Oriako alkateak, "Rikardoren ordezkapena, honengan genuen konfiantza gutxitzen joan delako da" adierazi zuen Rikardoren salaketei erantzunez.

Alkateak aipatu zuenez, nahiz eta gobernu akordioa hautsi Rikardok postu batzuk mantendu ditu, "akordio puntualak egiteko aitea irekia utzi baitzuen".

Baina, alkateak azaldu duenez, Gobernu taldearen tizat gai garrantzitsuen zirenen



Rikardo Ortega, EBko zinegotzia atzoko Udaltzarreko momentu batean.

aurrean Rikardok izan duen jarrera ez da egokiena izan, Goiegiko-lbarrako promozio-ko pleguetan, esate baterako. Horregatik, karguetatik ken-

tzea erabaki du Lasarte-Oriako talde sozialistak, "ez baita go kanpoko presiorik eta San M arkoseko gehiengoan aldatetarik ez delako egongo." •

Kelan enpresako langileak greban

Kelan enpresak itxeko erabakia hartu du. Espainiako gobernuak orain dela gutxi hartutako lan erreformari atxikita, enpresako nagusiak langileei lan urte bakoitzeko 20 egun ordaindu nahi die, baina langileak konbenioa mantendu, eta 45 eguneko indennizazio eskuratu nahi dute. "Gutako batzuk 19 edo 20 urte daramagu lanean, konbenioan markatutakoaren arabera, akordio batera iristeko prest gaude" dio Kelaneko LABeko ordezkariak.

Gaurtik hasita, ostiraletan, goizeko 10:00etan enpresa aurrean mobilizatuko dira. •



GIZARTEA /3

Somotoko Ikerketa Batzordeko burua aldatzeko eskatu du oposizioak

GIZARTEA /4

Lasarte-Oria garagardo zalea al da?

KIROLA /6

Muñoz-Baroja izan zen irabazle Lasarte-Oriako tenis txapelketan



IEFPS USURBIL GLHBI

Matrikula:
uztailaren 7tik 13ra



Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK



Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@ihusurbil.com

Neure kabuz



Futbolaren sua

Ez dago ukatzerik, futbolak baduela zerbait... zer den hori eta nola "erutzen" duen jendea ez dira gai errazak. Zer da duen hori? Hemen eta mundu guztian, ikusten ari garenez, jenderik gehienak futbol-mania bizi duela esan genezake. Gauza bat da gustatzen zaigun edo ez, eta beste bat da nolako arrasta duen aitortzea. Ez da orain mundiala deiturikoa jokatzeko ari direlako bakarrik, baita "Erreala", adibidez, lehen mailara igo delako, edo baita "Barsak" liga irabazi duelako, edo... Arrakasta eta zer edo zer hori dago. Gai hau, ikerlari batzuk aztertu dute baita. Horien iriziz, beste gauzen artean, badago bat, guri ere agian, egokitzen zaiguna, zeren futbola, "guda edo gerra"ren irudi birtuala dela dioena.

Benetako gaurko gudak nahiko birtual bihurtzen dizkigute telebistak, eta egiazkoak izanagatik, han nonbait gertatzen dira eta besteek egiten dituzte, ipar Amerikarrak eta horrela, baina guk, guk ez dugu horrelakorik egiten, guk futbola nahikoa dugu, dirudienez, eta bereziki gizonetarako, futbolaren gerra, izan ere. Nondik ulertu bestela, orain bertan eratu diren "yo soy español" hau edo, "la roja" deitura hori, edo Frantziak eta Argentinak eta besteak, klasifikazioa galtzearekin izan dituzten "nazioaren krisia"? Geure buruari begiratzen badiogu, zenbat eta euskal abertzaleago izan hainbat eta anti-selektzio-espainolekoak gara, eta alderantziz berdin, zenbat eta espainolista-go izan hainbat eta selektzioaren aldeko. Zergatik, gerra bat bezala bizitzen ez bada, guzti hau? Zergatik hainbesteko grina, poza eta sufrimena? Ez da axaleko gai bat, beste gauza sakon askoren ikur baizik.

Xabier Andonegi

Zorion-agurrak



Kontxi eta Oscar

San Ferminak bezain garrantzitsuak dira zuen urteak guretzat! Zorionak bikote!



Xabi

Zorionak eta bi muxu handi familo osoaren partetik. Muxuak!



Unax eta Garazi

Zorionak Unax eta Garazi, txokomarrubizko 4 muxu handi Ane Miren eta Liliren partetik.



Ainara

Zorionak printzesa eta bost musu potolo zuretzako.



Oier

Zorionak! zure 3. urtebetetzean, gurasoen eta Noraren partetik. Muxu handi bat!!!!



Irati

Zorionak eta txokolatezko bost muxu handi etxekoaren partetik. Ondo pasa!



Udane

Zorionak etxeko printzesari! Amona Murtze, osaba Ariz eta izeba Nahikariren partetik.



Xabier eta Gaizka

Guraso, aiton-amonak, izeba-osaba eta lehengusuen partetik ZORIONAK!



Goreti

Zorionak printzesa eta bi muxu potolo familia guztiaren partez

Heriotzak

Andrea Urionabarrenetxea Gandiaga, ekainaren 28an 88 urte zituela
Isabel Galarza Iñurritegi, ekainaren 26an 80 urte zituela
Pilar Alvarez Llarena, ekainaren 26an 80 urte zituela
Rosario Sagardia Izaguirre, ekainaren 19an 88 urte zituela
Francisco Cespedes Martinez, ekainaren 19an 60 urte zituela

M^o Carmen Gomez Basurco, ekainaren 16an 70 urte zituela

Jaiotzak

Ekain Paino Nuñez, ekainaren 25ean
Julen Vergara Peláez, ekainaren 22an
Mario García Izquierdo, ekainaren 22an
Ivan Mateychuk Kutsenko, ekainaren 12an

Azoka txikia

Eskaizta inmobiliarioak

• Apartamentu bat alokatzen dut ekainetik aurrera Cala de Finestrat herrian. 2 logela, egongela, bi komun eta sukaldaria ditu. Urbanizazioak igerilekua eta paddel pista ditu eta hondartza 150 metrotaratu. Telefonoa: 667 731 456.

• Uztaila eta Abuztuaren, Landetako Vieux Boucau herrian dagoen "Le Boucanier" urbanizazioan estudioa alokatzen dugu asteka. 700 euro astea. Informazio gehiago 626 614 111 telefonon.

• Lasarten etxebizitza alokatzen da. Prezioa 850 euro. Harremanetarako zenbakia, 662 332 848.

• Apartamentua alokatzen dut Jakan uda osoan. Bi logela, igerilekua eta garajea ditu. Harremanetarako zenbakia: 639 659 583

Salerosketak

• Garage bat alokatzen da Libertoko eraikinean. Harremanetarako telefonoa: 667 812940.

• Landaberri ikastolan 1go DBH-rako erabiltzen diren liburua saltzen dira. Bigarren eskukoak dira eta bere erdi-prezioan saltzen dira. Telefonoa: 667 731 346.

• Taxi lizentzia bat salgai Usurbilen, jubilazioagatik. Interesatuak Gipuzkoako Taxi Elkartearen esku-ratu dezakete informazio gehiago

eta egin beharrekoak. Harremanetarako telefonoa: 943 465 498.

Lan-eskaiztak

• Etxeko lanetarako langile bat eskaintzen da. Interno edo externo moduan lan egiteko prest. Harremanetarako telefono zenbakia: 676 188 411.

• Etxeko lanetarako langilea eskaintzen da. Externo moduan lan egiteko, eta orduka ere bai. Harremanetarako telefono zenbakia: 630 438 571.

• Mutil batek lana bilatzen du jende nagusia zaintzen. Externo edo interno moduan lan egiteko prest. Harremanetarako telefono zenbakia: 676 188 411.

Lan-eskariak

• Etxeko lanak, haurrak edo pertsona helduak zainduko nituzke, bi egunetik bat. Harremanetarako telefono zenbakia, 647 614 537.

• Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. Berarekin kontaktuan jartzeko 657791506 telefono zenbakira deitu behar da.

• Umeak zaintzen ditut nere etxean, Lasarte-Orian. Uztaila eta abuztuko hilabetetan astelehene-tik igandera eta honako ordutegian, 10:00etatik 15:00etara edo 18:00etatik 22:00etara. Harremanetarako zenbakia, 693 601 222.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 9

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371 151

Larunbata, 10

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Igandea, 11

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Astelehena, 12

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Asteartea, 13

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteazkena, 14

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Osteguna, 15

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, Egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Encinas, Somotoko Ikerketa Batzordeko lehendakariaren dimisioa eskatu dute

EAJ, LOHP, Hamaikabat eta ezker abertzaleko zinegotziek batzordearen lanari trabak jartzea egotzi diote

Somotora bideratu ziren laguntzak ikertzeko sortu zen Batzordeko hurrengo bileran Jose Angel Encinas Partidu Popularreko zinegotziak garpunen-laguntzen Ikerketa Batzordearen presidente gisa dimititu dezala eta beste presidente bat hautatu dadila eskatuko dute EAJ, LOHP, Hamaikabat eta Ezker Abertzaleko zinegotziek. Hala jakin arazi zuten asteazkenean eskaini zuten prentsaurrekoan.



EAJ, LOHP eta Ezker Abertzaleko zinegotziak prentsaurrekoan. HII-eko kideak ezin izan zuten egon.

Aurrekariak

2009ko abenduaren 15ean laguntzen ikerketa batzorde berezia osatzea onartu zen Udal Batzarrean. Formalki urtarrilaren 18an eratu zen Batzordea eta bilera horretan, PSOE eta PPren bozkekin Encinas jauna presidente izendatua izan. "Inor ez ginen harritu, izan ere, zinegotzi horrek ez du inoiz interesik agertu garpunen-laguntzen inguruan" adierazi dute oposiziokoek.

Argudioak

Oposizioko gainerako taldeek orduan izan zuten susmoa, "Batzordearen lanari trabak Batzorde barrutik bertatik sortuko zitzaizkiola" agerian jarri dela ere jakin arazi dute.

PPko zinegotziaren hainbat jokabide salatu dituzte, behar beste bilera-saio ez dituela deitzen, aitzakiak jartzen dituela bilerarik ez egiteko, bilerak zorrozki zuzentzen dituela eta hauetan nor agertuko den hark bakarrik erabakitzen duela, ez duela egoki ikusten gainbegiratzeko paperik eskatzea, gai-

nerako zinegotziek egiaztatutako erabaki, dokumentu, zenbaterako zehatz eta datuen aurrean berak ezjakintasuna, axolagabekeria eta nagikeria besterik ez duela erakusten...

"Halako pertsona batek ezin du ikerketa batzordea zuzendu, ikertuak direnek apropos jarria baitago, bere utzikieriaz ikerketa noraezean alferrik galdu dadin," adierazi du eta zera gaineratu: "itxurak gordez, baina ezer ez eginez denbora igarotzea besterik ez du lortu nahi, egia azaleratu nahi dugunok aspertzeko eta itxaropena galtzeko, batzordea denbora igaroz iraungitzen uzteko".

Honetaz gain, batzordeko presidentek batzordeko kide diren ezker abertzaleko zinegotziari tratu lotsagarria ematen diela salatu dute, "ez ikusiarena egiten du haiekin eta haien proposamenekin. Zenbaki batez deitzen die, ez haien izenez, eta gehienetan han ez

baleude bezala jokatzeko".

Hau guztiagatik, presidente berria ezartzeko eskaera egiten dute, "lana bizkortu eta eragin-kortzeko eta ikerketak, azterketak eta agerpenak denbora labur batean egin eta hartara laguntzen izan duten xedeari buruzko ondorio gardenak ateratzeko".

Dokumentazioa

Era berean, batzordeko bilerak prestatzeko dokumentazioa, eta laguntza horiek gainbegiratzeko ardura zuten udal teknikarien txosten guztiak eskura ez dituztela aditzera eman dute oposizioko zinegotziek: "oraindik ez dugu eskatutako dokumentazio osoa jaso. Eta falta den informazioa Udalean ez dagoela adierazi digute," jakinarazi dute.

Somotoko auditoria

Honetaz gain, Somotoko herrian auditoria martxan

dagoela gogora arazi zuten salaketa jarri duten zinegotziek eta Udalarari zuzentzeko ez jokatzeko leporatzen diote, "Gobernu taldeak erakusten duen jarrera ikasle txarren jarrera da, ikasturteko notak ezkutuan eduki oporrak igaro arte".

Izan ere, ekainaren 15ean informazio osoa bertan egon behar zuela jakin arazi dute. Gainera, azaldu dutenez, ikerketa Batzordeko kideek hiru dokumentu dituzte soilik eta ez dute oso argi nola sailkatu daitezkeen, "Gobernu taldeak informarean aurrerapen hutsak direla dio" eta.

Auditoriako informazioa giltzarria izan daitekeela uste dute, horregatik, nahitaezkoa jotzen dute informazioa zinegotzientz esku jartzea. Haien ustez, "ez baitago inolako aitzakiarik auditoriaren entrega atzeratzeko. Edo saihetsezina ikusten dutena atzeratu nahi al dute?" •

NATURA

Hegaztien eraztun-jartzea egingo da Froilan Elespe parkean

Aurten ere, Aranzadi Zientzia Elkarteak eraztunak jarriko dizkie Froilan Elespe parke botanikoan dauden enarei eta bestelako hegaztiei.

Eraztun-jartzea *Enara arruntaren ugalketaren biologia, etzauntzak eta migrazioa* proiektuaren barruan dago kokatua eta udan, hau da uztaila, abuztua eta irailen egingo da hezegunearren esparru hesituaren barruan.

Eskuzko tekniken bidez, harrapatuko dira hegaztiak. Horretarako, hezeguneko landareen artean kanal txiki batzuk irekiko dira, sareak ipini ahal izateko eta hegaztiak harrapatzeko.

Lasarte-Oriako Udalaren Ingurumeneko Departamentuak, lehendik inguru horretako auzotar gehienek ezagutzen duten ekimen honen berri eman nahi die herritarrei.

Era berean, laguntza eskatzen die auzotarrei, Aranzadi Zientzia Elkarteo kideen lanari eragozpenik ez jartzeko.

MUSIKA ESKOLA

Matrikula garaia da

Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako matrikula egiteko epea uztailaren 1ean zabaldu zen.

Aurrematrikula egin eta plaza duten herritarrek orain dute behin betiko izena emateko epea.

Matrikula egitera Manuel Lekuona kultur etxeko bigarren solairura joan behar da, goizez 9:00etatik 13:00etara eta azken eguna uztailaren 16a izango da. •

Iraileko Saldoen III. Azoka prestatzen ari da Aterpea

Urtean zehar aterabiderik izan ez duten produktuak salmentan jartzeko aukera paregabea izango dute beste urte batez, herriko komertzioek. Izan ere, Aterpea merkatari-elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarlanean prestatzen duten merkatuaren antolakuntza hasi da.

Erakusleihorik hoberena da norberaren markaren irudi komertziala herritarren eta bisitarien artean ezagutzera emateko.

Horregatik, Stock eta Saldoen III. Azokan parte hartzeko gonbita egiten die Aterpea

merkatari-elkarteak herriko komertzioei.

Azoka berezi hau irailaren 25 eta 26an egingo da, Michelin Kirol guneko pilotalekuan.

Larunbatean, hilaren 25ean, 10:00etatik 20:00etara egongo da irekia, eta igandeetan 18:00etan itxiko da.

Bertan bere produktua saldu nahi duenak, Aterpearekin jarri behar du kontaktuan, 637 955 030 eta 687 845 623 telefono-zenbakien bitartez, edo itziarirurun@hotmail.com helbidera posta elektronikoki bidalitz. •



Arropa, oinetakoak, denetarik aurkitu daiteke Stock eta Saldoen azokan.

ATERPEA

Gasolina merkeago Aterpeako txartela erabiliz

Aterpeak, Lasarte-Oriako Merkatarien elkartearen gasolina merkeago lortu ahal izateko kanpainak aurrera jarraitzen du.

Honetan, Oriako Allerru gasolindegian despositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, %2ko beharpena izango dute haien ordainketan. Ez galdu aukera. •

'Pirritx eta Porrotx-en bideoei esker euskara ikasten ari naiz'

Zortzi urte igaro dira jada Alex-ek Kubatik Euskal Herrira salto egin zuenetik

Be al dakizu zük Lasarte-Oriako tabernetan Keler garagardea edaten duzunean, nori esker den hori? Alex banatzaile kubatarra ezagutzen duen jende asko dago, seguru. Duela bost urte herriko tabernetan banatzaile bezala, eta egun ezagun eta lagun ugari egin ditu herrian.

Duela zortzi urte, Kuba, bere jatorria utzi eta Euskal Herrira hurbildu zen Alex eta Keler garagarde markaren banatzailea da duela bost urtez geroztik Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta eta Oreatxako tabernetan. Herri hauetan atitzen da eta azken urteotan, jende ugari ezagutu du herrian, eta etxe-bila zeharkatzen, Lasarte-Oria hartzen pentsatu bazuten ere, azkenean, bere emaztearen herria jo du, Donostiana. Antigu ora hain zuzen ere.

Zerk bultzatu zintuen Euskal Herrira etortzeko?
Egia esan sorpresa bat izan zen. Gaur egun nire emaztea dena Kuban ezagutu nuen. Euskal Herrian bizirik zela kontatu 'idan, eta egia esan nik ez nekien lurralde hori non zegoen ere. Berá hemerigo kontatu esaten hasi eta toki hau ezagutzeko irrika piztu zitzaidan.

Kubatik ateratzea oso zaila denez, lagun batek Austriara gonbidatu ninduen eta horrik etorri nintzen hona. Hemen ezagunduko eta Antiguon bizi naiz orain, nire emaztea antiguotarra da eta.



ZORIONAK PEJO



Alex eta bere kamioia aski ezagunak dira herrian. Bere izenak lasarteoritar ugari lagun edulduzera ahaldien du.

Laboa edo Ken Zazpikoen harritzen nauena jubilatuena letak asko gustatzen zaizkit. Euskara zaila da, urduri jarri eta blokeatu egiten naiz. Baina orain, bi urte eta erdiko ten semezari esker asko ikasten ari naiz.

Ze irizti duzu Lasarte-Oriaz herri bezala?
Oso ona. Etxebizitza bila hasi nintzenen henen ibili nintzen begira. Herri hau asko gustatzen zait. Jendera asko ezagutzen dut gainera, labernetan ingoanena oso gustatzen zait.

Latsatia zaria alipatu duzu, baina ez duzu ematen...
Ajan nire auzpegiagatik izango da. Jendeak ezagutu gabe aritu nintzen. Baita irribarresu nago, eta izan daitake horregatik, jendea niregan hurbiltzen da. Ni tipo normal bat naiz, ez naiz berezia sentitzen. Normala, jende guztia errespetatzen dut.

Sari ikusten zaitugu herriatik, nola banatzen duzu?
Orokorrean, jendea. Herri askitoba da, irakia eta denetarik du. Lasarte-Oria lasaitasari bizitzeko aukera izango nuke.

Non edaten da gehien?
XXI eta jalegin, jalegin gehiagorako, festetan dena agortzen da. Krisia dagoen arren, jalegin kontsumoak gora egin du, orain primeran nago. Falta zaitdan bakarra euskara ikastea da.

Ze irizti duzu herriko jaietaz?
Ez naiz askotan etorri, baina asko gustatzen zaizkit. Giro ona dago, eta ondo pasatzeko dituzuen gogoak ondo islatatzen ditu. Jai politak dira sarritan.

Ze irizti duzu herriko jaietaz?
Ez naiz askotan etorri, baina asko gustatzen zaizkit. Giro ona dago, eta ondo pasatzeko dituzuen gogoak ondo islatatzen ditu. Jai politak dira sarritan.

Ze irizti duzu herriko jaietaz?
Ez naiz askotan etorri, baina asko gustatzen zaizkit. Giro ona dago, eta ondo pasatzeko dituzuen gogoak ondo islatatzen ditu. Jai politak dira sarritan.



Dena astiroago doan garaian


Gipuzkoa, bizkor

Donostiako Bigarren Ingurabidea

Gipuzkoako errepideak gutxi behera aldatuko dituen Donostiako salhesbide "berria".

Azken belaunaldiako 17 kilometroko autobide hori esker, 40.000 ibilgailuk baino gehiagok ez dute Donostiako salhesbidea igaro beharrik izango, batez ere ibilgailu astunak eta Gipuzkoa zeharkatzen dutenak.

300 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eta trafikoa kudeatzeko teknologia modernoak zure erosotasuna eta segurtasuna handituko.



Kiroletako agenda

ATLETISMOA

Larunbata 10

Arratsalde, J.R. Latorre lasarteoriatarrek Euskadiko txapelketan parte hartuko du, Durangon.

Igandea 11

Goizez, J.R. Latorre eta I. Sevillano lasarteoriatarrek Euskadiko txapelketan parte hartuko du, Durangon.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 10

9:30ean, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako jubenilek Zumaiako XXXII. Uda Saria-Memorial Jose Mari Korta proban parte hartuko dute.

Igandea 11

08:00etan, Ostadarreko zikloturista taldeak Zumarragara du irteera.

PALA

SANTA ANA PALA TXAPELKETA

Astelehena 12tik osteguna 15era

19:00etan eta 20:00etan, Final laurdenetako partidak

ZALDI LASTERKETAK

Igandea 11

95. Zaldi lasterketa denboraldia Donostiako Hipodromoan

I. jardunaldia, DIARIO VASCO SARIA

17:30ean, Igo lasterketa, A GALOPAR SARIA, 1.200 m.

Del Cossa (FR)	Indiwark (IRE)	Lady Brockovich (GB)
El Incendio (IRE)	Secretside (IRE)	
Gargamel	Stilwell (FR)	Nannerl
Golfo Persico (IRE)	Un Monde	Resu

18:05ean, 2. lasterketa, FAISO GARBIKETAK SARIA, 1.600 m.

Doende	Ice Shelf (FR)	Leyenda
Sideside	Fathside (IRE)	Mambo Max (FR)
Rock of Asia (USA)	Via Salsa (FR)	Saioa
Hulrick Betica (GB)	Eraquery (FR)	Stent (FR)
Flying Blue (FR)	Lance Rocket (FR)	

18:40ean, 3. lasterketa, SKODA MENABI SARIA, 1.600 m.

Wolfgang	Markzor (IRE)	Carlina (FR)
Duncan de Ran (A)	Tradeside (GB)	Friedland
Danubio Azul (IRE)	Colelara (FR)	Kimberlita (GB)
John Fitzgerald (IRE)	Confiana (A)	Maserata (FR)

19:15ean, 4. lasterketa, MERKABUGATI SARIA, 2.000m.

Persicus (GB)	Jano (USA)	Ambasador
AI Precedent (GB)	Mercantyl (FR)	D'Artaghan (IRE)
Dusk and Dawn (IRE)	Potior lure (GB)	Draco
El Mago (IRE)	Rolandino (FR)	On the Dot (IRE)
	Klara	

19:50ean, 5. lasterketa, DIARIO VASCO SARIA, 2.000 m.

Libia (IRE)	Spain Blues (FR)	Premiere Vision (GB)
Para Elisa (IRE)	Tonia Bere (FR)	
Mendavia	Convidada (IRE)	Tasha Linda (IRE)
Piasca (USA)	Nuevo Abril (GB)	

20:25ean, 6. lasterketa, HIPODROMO TURF SARIA, 2.000 m.

Combatiente (GB)	Jatibonico (IRE)	Batuka
Rafsaidy	Sandulces	Xamuray
Sea Silence (FR)	Do You Dance	Golan Mahal (IRE)
Pompeyo (FR)	Maquiavelo (IRE)	Conmirian
Fourth Element (FR)	Fantastic Dream	



Lasarte-Oria tenis txapelketako lehenengo hiru sailkatuak antolatzailerekin.

Arg.:A. Zubizarreta

Muñoz-Baroja irabazle Lasarte-Oria tenis txapelketan

Hainbat kirol ekitaldi burutu ziren San Pedro jaietan. Horietako bat, ekainaren 26an, txupina baino lehen jokatu zen Lasarte-Oria tenis txapelketako finala dugu.

Final ikusgarria jokatu zuten J. M. Muñoz Baroja eta Abel Hernandezek. Izan ere, bi jokalariek ezkeriar hauen artean, lehia handia egon zen.

Piloteo luzeak jokatu zituzten bi jokalariek eta tanto politikak ikusi ziren, nahiz eta azken emaitzak hori

ez erakutsi. Muñoz-Barojak 6/1 eta 6/3 irabazi zuen.

Hirugarren postuan, Eugenio Moreno sailkatu zen, bere aurkariak, Claudio Bustamante ezin izan baitzuen partida jokatu.

Eskerrak

Antolatzailerak jakin arazi dutenez, 27 lagunel parte hartu dute txapelketan. Gipuzkoa osotik etorritako jendea izan da eta horregatik, maila ona ikusi ahal izan da partidatan.

Hauei guztiei eta lagun-tzaileei eskerrak eman nahi dizkie antolakuntzak eta hurrengo urtean, berrikuntza eta partehartzaile gehiago egotea espero dute.

Zozketa

Sari banaketaren ostean, Realeko igoeraren kamiseta eta motxila batzuek zozketatu zituzten antolatzailerak parte hartzaileen artean.

Zozketako sarituen izenak lasartenis.blogspot.com web orrialdean ikusi daitezke.

Iñaki Sueskun eta Nerea Eugi, irabazle, haurren bola-joko eta toka txapelketan

San Pedro jaiean barruan haurrentzako bola-joko eta toka txapelketak ere burutu ziren, ekainaren 28an, Michelingo Kirolgunean.

Hamar bat neska mutil aritu ziren bi lehiatan eta antolatzailerak oso pozik agertu dira gaztetxoan parte hartzea dela eta.

Lehiaketa

Iñaki Sueskunek erraz irabazi

zuen bola-joko lehiaketa, 16 birla bota ostean. Izan ere, bigarrenari, Xuban Ollokiegiri 6 birlako errenta atera zion eta hirugarrenari, San Ye Arangurenari 8koa.

Tokari dagokionez, neska batek eman zuen sorpresa, Nerea Eugik. Tokari zapzi aldiz joaz txapelketa irabazi zuen.


Bestalde, aipatzekoa da, partehartzaile gaztetxo bat

egon zela txapelketa honetan, 4 urte dituen Endika Merchan. Nahiz eta gaztetxoa izan, hiru alditan tokari ematea lortu zuen.

Antolatzailerak azaldu digutenez, parte hartzaile guztiek gozatu zuten jokoez eta trebetasunez aritu ziren bi txapelketetan. Amaieran, gainera, dominak eta goxokiak jaso zituzten.



Trebetasun handia dutela erakutsi zuten haur eta gaztetxoek San Pedroetako bola-joko eta toka txapelketan.



Paisaia Ametsetan, koloretako paisai ugari ikusgai Jalgi kafe-antzokian

RUDY margolariaren lanak izango dira ikusgai uztaila osoan *Paisaia Ametsetan* izenburuko erakusketan.

Irunen bizi den artista nafarraren 10 lan daude ikusgai. Lan hauek oholaren gainean oleo-arekin eginikoak dira. Batez ere Gipuzkoa eta Nafarroako paisaiak daude ikusgai.

Artista hau bere kabuz ikasitakoa da, autodidakta moduan eta bere lanek Bidasoako eskola zaharreko kutsu handia du.

UZTAILA OSOAN ZEHAR
JALGI KAFE-ANTZOKIAN



Manuel Lekuona kulturtxea

Manuel Lekuona kulturtxea
Geltoki kalea 18
Tel.: 943 376181

Liburutegiko udako ordutegia

UZTAILAN

Goizez: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:00etara

Arratsaldez: astelehenetan 16:00etatik 20:00etara

Larunbatetan, itxita

ABUZTUAN itxita egongo da

Eskutitzak

KELAN ELEKTRONIKA Iragarritako itxiera bat

Lasarteko KELAN ELEKTRONIKA enpresak, Uztaila bukaeran lantokia itxteko asmoa azaldu du.

Bertako langileek azken bi urteetan, ERE ezberdinak pairatu dituzte eta euren egoera benetan kaskarra da momentu honetan, langabezia prestazioa ia amaitu baitute.

Horrelako kasuak ohikoak egiten ari zaizkigu. Krisia aipatu eta horrelako kasuak inoren errua izango ez balira bezala begiratzen ditugu. Baina beti dago erantzularen bat. KELANen kasuan, bat baino gehiago.

KELANen itxiera, ongi planifikatutako itxiera bat izan da. Dena Lasarte-Oriako Udalean hasi zen, honek arau subsidiarioak aldatuta, lantokia dagoen industria gunean (garai bateko Ipirangan) etxeak egiteko baimena eman zunean.

Hortik aurrera, KELANeko nagusiek enpresak ixten aditua den abokatua kontratatu zuten, eta orduan hasi ziren enpresa egoera jasangaitz batera eraman duten jokabideak: nahitako gestio txarra,

eskaeren beherakada, eta azkenik EREak.

Bitartean KELANeko nagusiek, trikimailu legalak erabiliz lantokiaren jabetza, beraiek pertsonalki azaltzen ez diren elkarte baten eskutan laga dute. Langileekiko sortu litezkeen zorrei beraiek aurre ez egiteko eta Udalak eskura jarri zien "pelotazoren" etekin guztiak arazorik gabe jasotzeko.

Beraz bai hemen badaude erantzuleak. Alde batetik eta nagusienak, KELANeko arduradunak beraien zabarkeria eta diru-goseak sortu baitu egoera.

Baina beste aldetik Lasarte-Oriako Udalak ere badu bere erantzukizuna. Etxeak eraikitze behar ase ezin horrek, gauza asko eraman ditu aurretik herrian, oraingo honetan 12 lanpostu eta beste hainbeste langile kale gorrian utzi. Ez al du Lasarte-Oriako Udalak ezer esateko gai honetan? Edo beste askok bezala "krisia" egingo du erantzule aurpegia zuritzeko?

Lasarte-Oriako LAB

Oharrak

Usurbilgo Lanbide Eskolan epea zabalik

Usurbilgo Lanbide Eskolan matrikula egiteko epea ireki dutela jakinarazi dute. Interesa duen orok matrikula uztailearen 7tik 13ra bitartean egin dezake.

Sorgin Jaien guneko zozketak

Sorgin Jaien gunean, aurtengo San Pedroetan hainbat afariren zozketak egin ziren. Saritutako zenbakiak honakoak dira: Martin Berasategin afaria 0934 zenbakia; Txartelen 0980 eta Goiegin 1068.

Udaltzainek jasotako gauzak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, diruzorria, urrezko katea, zilarrezko zintzilikarioa, belarritako beltza eta dora-

tua, betaurreko graduatuak, erloju digitala, urrezko alianza, Jose Luis grabaketarekin eta bi baloi.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guzteei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Kirol instalazioen erabilpena

Udalaren Kirol Instalazioak entrenamendu eta txapelketarako erabiltzen dituzten talde federatu gehienek denboraldia amaitu ondoren, erabiltzaileeri ondoko hau gogora arazi nahi die Kirol Zerbitzuak, entrenamenduen hurrengo denboraldia hasi bitartean, ordu libreak aurki-

tzeko aukerak askozaz ere handiagoak direla bai kantzak okupatu edo alokatzeko.

Udako ordutegia kirol instalazioetan

Uztailearen 1etik aurrera, udalaren kirol instalazioetan udako ordutegia egongo da.

Kiroldegian, astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia. Igerileku, berriz, 7:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 21:30era eta sauna 9:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

Larunbatetan eta jai egunetan, kiroldegia eta igerilekua 9:00etatik 13:00etara. Sauna itxia egongo da. Igan-dean kiroldegia itxita egongo da.

Kirol guneari dagokionez, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 21:00etara egongo da irekia, larunbatean

goizez egongo da 9:00etatik 13:00etara eta igandeetan itxita dago.

Buruntzaldeako Kirol Instalazioak

Udalaren Kirol Instalazioen erabiltzaileei, ondoko hau gogoratzen diegu: abonua Buruntzaldeako edozein Udalaren Kirol Instalazio, edozein momentuan erabiltzeko bidea ematen duela, gune bakoitzeko arau eta egutegia errespetatuaz.

Era berean, jakin arazten da, Urnietako kirol instalazioak erabiltzeko derrigorrezkoa izango dela, bazkide txartelaz gain, takiletarako kandadua eramatea.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariari. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbide elektronikora bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Sorgin Jaien argi ilunak

San Pedroen balorazioa egin du Sorgin Jaietako Batzordeak

SORGIN JAIEN BATZORDEA

Aurtengo Sorgin Jaiek gune berri batean ospatu dira, gunea lortzeko borroka asko egin behar izan da, baina azkenean eta dudarik gabe herriko eragile ezberdinen batura lanari esker gune txukun bat lortu da.

Guneak bere garrantzia duelako maitasun osoz landua izan zen hasiera hasieratik eta espero dugu herritar guztiok hori nabaritzea.

Jai herrikoiak herriko erdi-gunetik alde batera geratu dira aurtengoan, baina argi dugu urte bateko kontua izan behar duela eta datorren urtean, herriko lanak amaitu bezain bizkor, herri erdira itzuli behar dugula.

Datorren urtean 10 urte beteko dira Sorgin Jaiek sortu zirela REM zenaren magalean. Honela herritar guztiak dei egiten diegu urtean zehar antolatuko diren ekintzetan parte hartzeko eta datorren urteko jaiek guztion artean antolatzeko.

Hala ere pasa berri diren jaiak baloratzeari ekingo diogu, argi ilunak ageri baitira zerauan.

Ahaztuak

Ezin dugu aitzakiarik jarri, ezin dugu barkamenik eskatu, baina argi eta garbi adierazten dugu ez zaituztegu ahaztuko.

Aurtengo zuziria botatzera-koan oholztan jende asko falta zen, altxamendu faxistaren biktimak asko direlako gure herrian, eta beraiei eskaini nahi izan genien aurtengo lehen txalo zaparrada. Guretzako ohore bat delako zuen hurbiltasuna nabaritzea.

Baina lehen aipatu bezala, jende ugari falta zen oholta gainean eta beraiei hitzeko lehen muxua.

Gazteak

Sorgin jaiek zer litzateke gazte-rik gabe. Hemen bigarren muxua, pintatu, txosna altxa, josi, musika jarri, zerbitzatu, janaria egin, kafe goxoak eman, garbitu, jaso, gorde, hitz egin, dantzatu, ... Ama ezina.

Dudarik gabe gure herriak pozik egoteko hainbat motibo izan baditu, eta horietako bat gazte jendearen indarra da. Biba zuek.

Orduategia

Txosnetan dena berandu!!! Saiatu izan gara dudarik gabe orduategia betetzen, egitarau beteari ordurik ordu lotzen, baina batzuetan ezin eta bestetan eskutik joandako kontuak.

Datorren urtean egunari 30 ordu eskatu beharko dizkiogu bestela alfer alferrik gabilza.

Honela barkamenak eskatu Sorgin Dantzako kide guztiak, zer zen hura, alde batean Gabirikoak dantzan eta besteetan Sorgin Dantzakoak. Bi lekutan egon nahi eta ezin.

Bizilagunak

Lagun izaten jarraitzen dugu ezta? Errepidea moztuta, gauean musika eta zarata non nahi. Mila esker erakutsitako pazientzia dela eta, uste dugu gurekin batera jaietan gozatu izana. Muxu bat bizilagun guztiak.

Mila esker

Mila esker, bertan parte hartu duzuen elkarte eta pertsona guztiak, zerrandatzen hasi gaitzeko, baina zerrenda amaigabea da. Zikiroko giroa, oilaskoen usaina, dantzarien iaioitasuna, irrien lagunak, kafe pizgarrien beharra, kontzertuetako alaitasuna, parte hartze nabarmena, goitik behera eta behetik gora egitea posible dela erakutsi duzue-



Sorgin Jaiek Gunea jendez lepo zegoen aurten ere txupina bota aurretik.

nak, antzerkirik gabeko munda tristea delako, rumba, ska eta trikitia, umeen danbor jokoak, lokalen aniztasuna, erritmo eta errima jokoak eta zuek, denak, txosnan eskean edo lanean ibili zaretenok eta oholztan kantuan alaitasunez ibiliak. Mila esker guztiak.

Argiak

Greba orokorra herrian, modu nahiko berezian landu behar izan genuen, guk gure aldetik goizean zehar itxia mantendu genuen gunea, eta arratsaldean manifestazio jendetsua abiatu zen herriko karraketan barrena. Herri langilearen borrokaren aldean kokatzen garelako inolako duda izpirik gabe.

Beste argi izpi bat Udalak nahi izan ez zuen ikurrinak ekarri zigun. Gurean ongi etorria izan da dudarik gabe.

Euskara ere nagusi izan da gunean, euskaraz gozatzeko aukera izan dugu sorgin gune osoan zehar.

Gu ez gara udalaren egitaraua epaitzen hasiko, baina

euskararen presentzia sorgin gunea murriztu da eta horrek kezka larria piztu digu.

Espero dugu honen joera aldatzea eta euskararen eremua herri osora zabaltzea.

Ilunak

Eguna iluntzen saiatu ziren Ertzaintzaren hiru patruila. Arratsaldeko lauak pasa berri zirela, Ertzaintzaren hiru patruila iritsi ziren sorgin gunea ziztu bizian, bertan lau pertsona identifikatu zituzten eta ondoren eskuz eginiko Euskal Presoak etxera zioen maingidre zatia handia ostu zuten.

Ondoren, txosna barrura sartu, inongo baimenik gabe, eta bertan beste banderola bat eta amnistia jartzen zuen beste bi banderola lapurtu zituzten.

Ekintza honen aurrean Sorgin Jaiek bere haserre eta identifikatuak izan ziren lagunei babes osoa eskaintzen die.

Honetaz gain, lapurtuak izan ziren gauza guztiak lehen bait lehen itzultzeko

eskaera egiten dugu. Presoen gerturaztea eskatzea ez da ilegala, ilegaltasuna presoak beraien herritik mila kilometrotara izatean datza.

Azpirarratzeko kontua da, Sorgin Jaiek herriko diru publikotik 0 euro jasotzen dituela eta bere aurrekontua 23.000 eurotik gorakoa dela. Herriko jai parte hartzaileak antolatzeko sekulako sakrifizioa egin behar izaten dute herritarrek.

Hau ez da pozteko kontua, argi dago auto finantziatzeko gai garela, baina herriko dirua guztiona dela izaki, zer pentsatua ematen du.

Azken egunean, Sorgin Jaietako ordenagailua eta pantaila lapurtuak izan ziren. Lapurreta honek ekonomikoki baino gehiago moraliki min handiagoa ematen digu.

Hau da Sorgin Jaiek eginko gogoeta, datorren urtean 10 urte ospatuko ditugu.

Animo, muxu asko eta aupa zuek. Beti bezala, herritik eta herriarentzat... •

SALA GALA

ZATUZ ZURE DISKOTEKA BERRIA EZAGUTZERA!

GIRORIK HOBERENA LAGUNARTE PAREGABEAN!

Ostiraletan salsa

Larunbatetan

17:30ean areto dantzak eta musika

zuzenean

23:30ean diskoteka

Igandetan

17:30ean dantza eskolak eta animazioa

Fermin eta Nataliaren eskutik (salsa, merengea, cha cha cha...).

Areto dantzak 21:30ak arte.

Galarreta Jai-Alai Frontoia • Hernani 20120 • Tel.: 943 333 116 • www.sala-gala.com